

Inma Errea

Nori berea

Euskaldun gehienek uste dute *Isil-isilik* abestia herri abestia dela. Eta egia da. Baina ez da egia. Alegia, orain berrogeita hamar urte inguru Eibarren jaio eta Ordizian hil zen

Fernango Goenaga Iribarrenek sortua da. Alde honetatik egiledun abestia da. Baina harrez geroztik, isil-isilik, Euskal Herriaren bihotzeraino sartu da eta gaur egun oso gutxi izango dira inoiz doinu horren kulunkan samurtu ez diren euskaldunak. Horrela begiratuta, beraz, herri abestia da”.

Halaxe zioen, orain dela hamar urte ia, Jose Ignazio Ansorenak aldizkari honetan bertan argitara emandako *Ixil ixilik* izenburuko artikuluan. Egia da, kanta horren kulunkan edonor samurtzen da (hori izan genuen sehaska-kantarik eraginkorrena gurean alabarekin nahiz semearekin), eta egia da, baita ere, abestia, “egileduna” izanik, herrikoi bilakatu dela erabat eta aspaldi.

Euskaldunon artean, kantak oso erraz, eta oso azkar, bilakatzen dira herrikoi. Proporziorako, batzuek herrikoi jotzen dituzte *Egun da Santimamiña* edota *San Simon eta San Juda*. Eta bai, egia da, herrikoiak dira, herriak, jendeak, bere egin dituelako. Baina nori berea eman eta kanta horien hitzak Gabriel Arestik idatzi zituela eta lehenaren doinua Arrizabalaga batek eginga dela guztiok jakingo bagenu ere, kantek diren bezain herrikoi segituko lukete izaten, eta, aldi berean, gure kultura aberastuko genuke hein batean bederen, edozein festa-afari-ospakizun-parrandatan kantatzen diren abestien eta euskal literaturaren arteko lotura estuak agerian utzita.

Aurtengo Aste Santua baino lehentxeago Karl Jenkins eskoziarraren *Stabat Mater* musikalanaren latinezko hitzak euskaratzeko enkargua iritsi zitzaigun lantokira. Latinez nork eginga zen (Jacopone da Todi, omen) esaten zuen agiriak, eta gaztelaniara egindako itzulpenaren egilea Lope de Vega zela ere azaltzen zuen. Euskaraz ere baziren pasarte batzuk, eta horiei buruz agiriak “anonimoak” zirela esaten zuen. Bilatzen hasi eta ikusi genuen jada euskaraz emanda ziren pasarte gehien itzultzailea Nikolas Ormaetxea *Orix* zela, eta testuan bazirela, tartekatutik, beste pasarte batzuk non ezinezkoa izan bainuen itzultzailea identifikatzea.



Orain hilabete bat-edo berriro gertatu zen: itzultzeko iritsi zitzaigun kontzertu baten programan herrikoitzat jotzen zituzten *Euskal Herrian euskaraz*, *Xalbadorren beriotzean*, *Txoria*, *txori*, *Gora ta gora beti* eta *Isil-isilik* dago.

Dudarik gabe, euskal herritarrok kanta horiei hain harrera ona egin izanak Xabier Amuriza, Natxo de Felipe, Xabier Lete, Joxean Artze, Mikel Laboa, Gabriel Aresti edota Fernando Goenaga ohoratzen ditu, baina ohore horren erdia herrikoitasunaren putzu sakon-ilunean hondoratzen da (Urkoren baimenarekin...) herrikoitasuna eta anonimotasuna nahasten ditugunean, eta altxorraren parte bat galtzen dugu euskal kulturaren itsaso zakarrean.



Euskaldunon artean, kantak oso erraz, eta oso azkar, bilakatzen dira herrikoi. Proporziorako, batzuek herrikoi jotzen dituzte *Egun da Santimamiña* edota *San Simon eta San Juda*. Eta bai, egia da, herrikoiak dira, herriak, jendeak, bere egin dituelako. Baina nori berea eman eta kanta horien hitzak Gabriel Arestik idatzi zituela...



Ez dakit nola zuzen daitekeen egoera, baina uste dut egin beharko genukeela nola edo hala. Euskal kantak aipatzean kontu pitin bat gehiago eman egiletzaren aferari. Eta euskal literatura irakasten denean euskal musikagintzari lotzen dizkion hariak nabarmendu. Gure tradizioa ongi ezagutzeko, iraganean egindakoak magma bereizigabe eta lauso batean ez galtzeko.

Gure kulturak sustrai sakonak eta hari anitz eta luzeak baititu, eta merezi du horiek guztiak ahalik eta modu zehatzean helaraztea gaur egungo mundura eta gero-ko belaunaldietara. ■

